

# XagunArtea

2008ko martxoaren 17a

Xagun aldizkaria

27. alea

## Aizpita zabalik



herri inaugurazioa

Martxoaren 8an herritarrentzat, eta martxoaren 12an ofizialki, inauguratu ondoren, Aizpitako adieraztegiak irekita ditu ateak bisitariarentzat. Herritarrentzako inaugurazioan, ehundik gora zeraingar elkartu ziren eta guztiei asko gustatu zitzaizen adieraztegia. Ofizialki, agintariak

bertan zirela inauguratu zen. Aurrerantzean asteburuetan irekita egongo da urte guztian zehar, eta opor garaian eskaintza zabaldu egingo da astean zeharrera ere. Dena dela, bisitari guztiek informazio bulegoan izango dute Aizpitari buruzko informazio osoa.



herri inaugurazioa



inaugurazio ofiziala



Aizpita adieraztegi goiko solairuan ikus-entzunezkoa, jolasteko pantaila eta beste hainbat elementu daude. Beheko solairuan, berriz, Laborderen bilduma, eta Aizpeko meatzeen hainbat informazio dago.



## Zeraini esker onak Akonibeko misiotik

Afrikako Ginea Ekuatorialeko Akonibe herrialdean, misio bat dago aspalditxotik. Urte batean baino gehiagoan, Zerainen Santa Eskean bildutako dirua hara bidali izan da ahal den neurrian laguntzeko. Orain, laguntza horregatik zeraindarrei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Martxoaren hasieran, Akoniben misiolari dagoen Sor Trinidad Fernandez monja sorkundetarra Zerainen izan genuen bisitan. Ebakuntza bat egin behar ziotela-eta, Afrikatik Donostiara etorri zen monja hori eta bereziki Zeraina bisita egin nahi izan zuen esker onak ematera. Besteak beste, Zeraingo laguntzari esker, Akonibeko misio horretan, ur edangarria dute, eta hori aurrerapen handia ez-ezik, behar beharrezkoa da Ginea aldean.

Misio horretako hainbat argazki ere ekarri zituen, urak herrixka nola hobetu duen erakusteko. Orain, sorak urezta ditzakete, eta hori goseari aurre egiteko oso garrantzitsua da. Horrez gain, gazteentzako etxeak egiten ari direla ere azaldu eta era-



kutsi zigun Sor Trinidadek. Azken batean, Akonibe aldean, egoera oraindik oso ona ez izan arren, aurrerapen asko egin ahal izan dituzte, besteak beste, hemendik emandako diruari esker.

Etorkizunera begira, badituzte oraindik ere nahikoa premia: errepi-

de bat eraikitzea eta anbulategia martxan jartzea, adibidez. Horiatarako ere ahal dela Zeraindik laguntza bidaliko zaiela esan genion. Eta berak orain arte egindako guztia-gatik, bihotz-bihotzez eskerrak eman zizkigun zeraindarroi, Akoniberen izenean.

## Entenga

**H**onako azalpen hau eman digu Elenak, hitza eskaintze-rakoan: "Iltze haundiak. Lehen asko erabiltzen ziren". OEH hiztegiara joan naiz berehala, ohiko konprobazioa egitera. Han dago hitza, garbi-garbi: Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan ezaguna da (apenas, ordea, Iparraldean). Esanahia bat dator, funtsean, Elenak esandakoarekin: "clavo de siete pulgadas o más de largo" Euskarazko bi esaldi ere eransten ditu hiztegiak, handik eta hemendik jasoak. 1930eko aipamen batek honela dio: "hamalau zentrimetro inguruko (untze) biribillak *entenga* (izena) dute". Zubillagaren 1964ko aipamenak, berriz, honela: "Arropak zintzilika ipintzeko, gelako atean atzean, ziri edo *entenga* batzuk besterik garai artan ez genduen ezagutzen".

Hitza galtzen ari da, nonbait, zeraindar galtzen artean. Goierrin ez ezik Beterrin ere galtzen ari dela esango nuke: denbora zen entzuten ez nuela. Adin betetik gorako euskaldunon akorduan bizirik dago, halere, hitz hori: neure kasu konkretuan, umetan eta gaztetan asko entzuna naiz *entenga*, eta hainbatean erabilia. Gogoan dut gaztetan maiz entzun ohi zela hitz hori, baserri giroan, bereziki: teilatu-aldea berri behar zenean, etxe-ordeko bat eraikitzeko orduan, ukuilua berritzerakoan,... Baserri-girotik kanpora ere behar-beharrezkoa zen hitz hori, etxeko edo lantegi-ko obra-lanean ari zirenen artean. Galtzen ari da ordea. Iltzea edo untzea ez da galtzen ari, mailua eta zerra ere ez. *Entenga* bai. Zergatik ari ote da galtzen? Hiru esplikazio posible ikusten ditut nik. Zuek esango duzue, taxurik hartzen diezuen esplikazio horiei.

Batetik, eraikuntzan lan egiten duten euskaldunak gero eta gutxiago dira: erdaldunak ikusten ditugu obra-lan handietan, oro har, gero eta maizago: atzeritarrak, bereziki. Euskara gutxi entzun liteke haien ezpainetatik; garai bateko *entengak* beste izenen bat izango du, izatekotan ere, haien hizkeran.

Bestetik, teknologia aldatuz doa.

Aldakuntza horren harian, lehengo hainbat produktu alde batera utzi dira eta berriak agertu. Iltze mota honen kasuan ere litekeena da halakorik gertatu izana. Litekeena da *entenga*-iltzeak gero eta gutxiago erabiltzea. Ez naiz kontu horietan espezialista, eta ez dakit gauzak justu-justu horrela diren. Ez nintzateke batere harrituko, ordea, lehengo *entengaren* ordez gaur egun beste iltze mota bat, eta beraz beste izen bat, zabaldurik balego.

Bada, azkenik, hirugarren motibo posiblea. Garai bateko jendea, Zerainen eta Zeraindik kanpora, *homo faber* zen bere zentzurik zabalenean. Etxean (baserrian) prestatzen ziren, normalean, bizi izateko behar ziren gauza gehienak. Jan-ederako behar zen ia guztia, esate baterako, etxean sortzen zen: berdurra eta babarrun, arto eta arrautza, sagar eta gaztaina, oilasko eta urdai, txorizo eta ogi, sagardo eta pitar. Jantzeko behar zen gehiena ere bai: larruzko abarka eta artilezko galtzerdi, lihozko edo artilezko oihal-ehuna, kapusai eta gona. Baita harat-honat ibiltzeko osagarriak ere: gurdia eta lehera, uztarria eta esku-makila, alba-zorroa eta zahatoa. Etxean bertan prestatzen zen orobat, edota bertan konpontzen, lanerako tresneria arrunta: etxaurrean pikatzen zen sega, eta etxe ondoan konpontzen gurdiaren gurpila eta leheraren burdinajea. Horrek guztiak ondorio bat zekarren berekin: gauza jakinean espezializatu ordez, gauza askotan adituak izan behar zuten lehengo gizon-emakumeek, Zerainen eta beste leku askotan. Baita tresna-prestatuntzan eta etxegintzan ere. Etxegintzan aditu izateak, berriz, iltze-jendea ondo manejatzen jakitea zekarren berekin. Iltzea ondo manejatzen jakitea eta iltze mota diferentek ondo bereiztea: zer iltze erabili zertarako, eta zein iltze ez, argi eta garbi jakin behar zen orduan. Iltze modu bakoitzari bere izena eman



behar zitzaion horretarako. Hots, era askotako teknologiaren jabe izatea eskatzen zuen bizimodu hark. Teknologia asko menderatzea eta alor haietako produktuen izen bereziak ondo ezagutzea. Orain bizi garen gizarte berrian, aldiz, lehengo polibalentzia teknologiko hura murriztu egin da. *Homo faber* hari bes-telako *homo* eta *mulier* moduak hartu dio txanda. Etxegintzan eta tresna-prestatuntzan, bereziki, gero eta gutxiagok dakigu: bakoitza geure jakintza- eta trebezia-esparrura mugatzen ari gara, eta gehienok urruti bizi gara etxegintzaren eta tresna-prestatuntzaren esparrutik. Iltze gutxi astintzen dugu, horregatik, geure bizian. Gutxi horiek, gainera, brikolajearen esparrutik datozkigu askotan: erdaraz ia beti, eta *entengaren* neurrikorik gutxitan. Nola harrituko gara, hortaz, hitz hori galtzen ari bada Zerainen?

Amaitzeko, duda-muda txiki bat azalduko dut: burdinazkoak al ziren, beti, *entengak*? egurrezko ziriei ere *entenga* esaten al zitzaien? "Egurrezko ziriak" diodanean, badakizue noski zertaz ari naizen: adibidez Zeraingo museoan, teilatuko zurajeon, egurrezko pieza bat bestearekin lotzeko erabiltzen diren ziri handi horiek. Horiek ere *entenga* al ziren? Seguru nago Zerainen badela duda hori argituko digunik. Animo beraz, eta eskerrik asko alde zuretik.

Mikel Zalvide



## Xagu-txoko



Babesetik

OTSAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>
Euria (l/m)	GUZTIRA: 30,l				0	8	10
C° altuena	ALTUENA: 21°				9	11	9
C° baxuena	BAXUENA: -1°				3	4	-1
	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>
Euria (l/m)	5	0	0	0	0	0	0
C° altuena	11	13	18	17	18	19	18
C° baxuena	6	4	6	4	4	10	7
	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	17	15	14	15	13	18	17
C° baxuena	4	6	6	7	8	3	7
	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	15	12	13	18	21	19	20
C° baxuena	8	9	10	9	5	4	11
	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>		
Euria (l/m)	0	0	5	2	0		
C° altuena	16	21	20	20	17		
C° baxuena	10	7	10	11	10		

### Ezohiko otsaila

30 litro eta temperatura baxuena zero-petik gradu bakarra. Ez dago metereologoa izan beharrik hori oso normala ez dela esateko. Azken 9 urteetako datuei begiratuta, aurtengoa izan da Zerainen otsailean euri gutxien egin duen urtea. 2006an egin zuen hurrengo gutxien, baina aurreten baino ia 3 aldiz gehiago: 89 litro. Atzerago eginenez gero ordea, azken 80 urteetan izan dira beste hiru urte aurreten baino otsail lehorragoekin. Udaberrian urtegiak betetzen badira, gaitzerdi!



### Zegamarrak nagusi mus txapelketan



Martxoaren 1en jokatu zen Liztormendiko mus txapelketa. Parte hartu zuten 24 bikoteren artean, Jon Arakama eta Jon Azurmendi zega-

mar gazteek irabazi zuten txapela, Santi Alustiza herritarraren eta Jose Mari Gerriko segurarraren aurkako finalean.

### Euskal Herriko Itzulia Zerainen apirilaren 7an

Legazpin hasi eta Legazpin amaituko da Euskal Herriko txirrindulari itzuliaren lehenengo etapa apirilaren 7an, astelehena. Zeraindik bi aldiz pasako zaigu karrera. Segura aldetik etorrita, arratsaldeko 14ak aldean igaroko da lehendabizi Aztiri aldera. Bigarren aldiz, Aztiri aldetik etorrita Mutiloa aldera igaroko dira arratsaldeko 15:30ak aldera.



### Espainiako Kongresuko hauteskundeak

Martxoaren 9an egin ziren hauteskundeetan honako emaitzak izan ziren Zerainen: Zentsoko 208 pertsonetatik 89 joan ziren botatzera; absentzia %57,2koa izan zen. EAJ: 59 boto; Aralar: 11 boto; EA: 7 boto; PSE: 3 boto; AMD: boto bat. Zurian berriz, bost boto izan ziren.

### Aste Santuko elizkizunen ordutegiak

Ordu hauetan izango dira Zerainen Aste Santuko kristau ospakizunak: Ostegun Santuan arratsaldeko 17etan; Ostiral Santuan arratsaldeko 16etan; Pazko egunean goizeko 11etan Meza Nagusia.

### Goierriko bola txapelketa apirilaren 5ean

Taldea egiten den Goierriko bola txapelketaren finala Segurako bolotokian jokatuko dute apirilaren 5ean. Zeraingo ordezkariak han izango dira. Ea zer egiten duten.